



## Gomistegi

**Z**eiñek ezta Oñatin **Gomistegi** ezaguketan? Aloña, Arantzazu edo Duru aldiian ibilli dan edozeiñek badako baserri horren barri. Baiña noiz jaso zan etxe hori? Zeintzuk bizi izan dira bertan? Beti izan da fraidien baserrixa? Nundik datorkixo izen kurioso hori? Honeik guztiok argiketean saiatuko gara hurrengo illaretan.

Arantzazu auzoko baserri gehixenak lez, Gomistegi be nahiko berandu eginddakua da. **Domingo Idiazabal Albeniz** azpeitiarra izan zan paraje malkartsu horretan etxia jaso ebena XIX. gizaldixan. Egixa esan, Idiazabal mutikotan etorri zan Arantzazura ikastera, lehenengo karlistadaren ondorengo fraidien esklaustraziñoeko denporan; baiña estudixuak alde batera itxi eta 1855ian Isidora Madinabeitia Sindikako alabiarekin ezkondu zan kalera. Patrué kalia jarri zan bizi izaten eta **marragero** ofiziuari heldu otzan, hau da, animalixendako mantak egitten zittuan. Domigo famaua egin zan Oñatin bere zelebrekerixengatik.

Alargundu eta barriro ezkondu zan 1860xan, Paula Bengoarekin orainguan. Eta 1868 inguruan, Arantzazu aldera bueltau eta Gomistegi izeneko korta ondoan baserrixa egittiari ekin otzan. Oñatiratutako azpeitiar hau apenas izan zan nekazari saiatua, baiña bere semia fin-hutsa ei zan eta harek gogortu eben baserrixa. Familixia gero Argentinara fan eta handik **Rufino Idiazabalek**, Domingoren billobiak, salgei jarri eben etxia. Arantzazuko fraidiak erosi euen 1950ian eta, obra batzuk burutu eta kamiño barrixa urratu eta gero, anai lego frantziskotarrak jarri ziran han bizitten 1953an, berrogeita hamar urte honeittan komentua eta kolejixorako makiña bat esne, arrautza, okela eta ortu-gauza produziduz. Jakiña danez, orain dala urte batzuk artzain-eskola ifiñi daue bertan.

Fotografixia 1954an ataratakua da, jabe zaharrak Gomistegira egindako bisittaldi batian. Baserrixa atzian dauela, Rufino Idiazabal agiri da erdixan bere senidiekin; fraidiak, ezkerretik eskumara, **Andres Bengoetxea**, **Joxe Inazio Lasa**, **Mariano Errasti** eta **Pedro Billar** dira. Lehenengua eta azkena baserrixan bizi ziran.

Eta zer esan izenaren gaiñian? Batzuk **gomizio** berbatik datorrela uste daue: egur-ikatz klase bat zan gomizua eta paraje horretan halako asko egosten zalako jarriko otzaila nunbait izen hori. Beste batzuk, ostera, pertsona-izena ikusten daue horren atzian, **Gomis** bat, hain zuzen. Gomisen etxea edo lekua esan gurako eben. Ni neu be iritzi horren aldekoa naiz, era horretako toponimuak Euskal Herrian dezente dittugulako: Antsuategi, Gartziategi, Mariategi, Petritegi eta abar. Problemia da Aloña-ziazarreko aldapa horretan ez tala 1868ra arte etxerik dagueunik aittaketan. Leku-izena, **Comistegui** moduan, 1740 inguruko dokumentu batian topau dogu.

J. E.

Argazkixa **Arantzazu, Euskal Santutegi bat XX. mendean** liburutik hartu dogu eta daturik gehixenak Joxe Inazio Lasa eta Nikolas Seguroalaren idazlanai zor dostegu.